

ARRETA GOIZTIARRA 0 ETA 6 URTE BITARTEAN (GARAPEN FISIKOA, KOGNITIBOA ETA EMOZIONALA LEHEN URTEETAN)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunarekin > Laguntza psikologikoa eta arreta goiztiarra

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Garapen-nahasmenduak edo pairatzeko arriskuan dituzten 0 eta 6 urte bitarteko haurrak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Garapeneko nahasmendu fisikoa, psikikoa edo sentsoriala **edo pairatzeko arriskuan 0 eta 6 urte** bitarteko haurrak.

Zertan datza?

Arreta goiztiarraren barruan, gizarte-zerbitzuek, osasun-sistemak eta hezkuntza-sistemak beren garapenean arazoak dituzten edo izateko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko haurren beharrei erantzuteko egindako ekintzak sartzen dira ([2.7.4 fitxa](#)). **Garapenean trastornoak izateko arriskuan dauden haurrak dira:**

- Arrisku biologikoko egoeran dauden adingabeak, heldutasun-prozesua alda lezaketen egoerak jasan dituztenak, hala nola goiztiartasuna, pisu txikia edo anoxia jaiotzean, edo nahasmendu kognitiboak, mugimenduzkoak, sentsorialak, emozionalak, jokabidezkoak, hizkuntzarenak,

orokortuak edo adierazpen somatikokoak dituztenak.

- b. Arrisku psikosozialeko egoeran dauden haurrak, heldutasun-prozesua alda dezaketenak: zaintza falta, arduragabekeria, familia-harreman egokirik eza, tratatu txarrak, abusua, etab.

Arreta goiztiarrak helburu hauei erantzuten die:

- a. Urritasunak haurrarengan duen eragina murriztea
- b. Nahasmendu edo arrisku handiko egoera batek eragindako urritasuna saihestea edo murriztea.
- c. Haurraren garapena optimizatzea.
- d. Konpentsatzeko, oztopoak kentzeko eta egokitzeke mekanismoak sartzea.
- e. Haurraren familiaren eta ingurunearen beharrak asetzea.

Norentzat?

Garapen-arazoak dituzten edo izateko arriskua duten **6 urteko edo hortik beherako haurrak**, bai eta haien familiak eta ingurunea ere.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

6 urte edo gutxiago izatea.

Garapenean nahasmendu fisiko, psikiko edo sentsoriala diagnostikatzea, edo izateko arriskua.

Arreta goiztiarreko zerbitzuen beharra, Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldearen (AGET) balorazio teknikoaren arabera.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Arreta goiztiarra Araban](#)
- [Arreta goiztiarra Bizkaian](#)
- [Arreta goiztiarra Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)